

## EUSKO JAURLARITZA

### LAN ETA JUSTIZIA SAILA

Lan eta Gizarte Segurantzako  
Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza

*EBAZPENA, Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde ordezkaritza, Cotonos Aguirrezabal, S.A. enpresaren hitzarmen kolektiboaren erregistro, gordailu eta argitarapena agintzen duena (20100962012014 kodea).*

#### AURREKARIAK

*Lehenengoa.* 2020ko urtarrilaren 15ean enpresako zuzendaritzak eta pertsonal ordezkariek sinatu zuten aipatutako hitzarmen kolektiboa.

*Bigarrena.* 2020ko otsailaren 6an aurkeztu zen Lurralde Ordezkaritza honetan, adierazitako hitzarmenaren erregistro, gordailu eta argitalpen eskaera.

*Hirugarrena.* Urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuaren 8. artikulua aurreikusitako errekerimendua burutu (2011-2-15eko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*) eta 2020ko otsailaren 27an bete da.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

*Lehenengoa.* Urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 90.2 artikuluan aurreikusitako eskuduntza, lan agintaritzari honi dagokio, honako arautegiaren arabera: Lan eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen, apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuaren 15.1.h artikulua (2017-04-21eko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*); urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretua (2011-2-15eko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua (2010-6-12ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*), hitzarmen eta akordio kolektiboaren erregistro eta gordailuari buruzkoak.

*Bigarrena.* Sinatutako akordioak aurretik aipatutako Langileen Estatutuaren Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak betetzen ditu.

Honen ondorioz,

#### EBATZI DUT

*Lehenengoa.* Hitzarmen eta Akordio Kolektiboaren Erregistroan inskribatzeko eta gordailutzeko eta aldeei jakinarazteko agindua ematea.

*Bigarrena.* Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko agintzea.

Donostia, 2020ko martxoaren 4a.—Juan María Esnaola Mendizabal, jarduneko lurralde ordezkaria. (1350)

## GOBIERNO VASCO

### DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y JUSTICIA

Delegación Territorial de Trabajo y  
Seguridad Social de Gipuzkoa

*RESOLUCIÓN del Delegado Territorial de Trabajo y Seguridad Social, por la que se dispone el registro, publicación y depósito del convenio colectivo de la empresa Cotonos Aguirrezabal, S.A. (código 20100962012014).*

#### ANTECEDENTES

*Primero.* El día 15 de enero de 2020 se suscribió el convenio citado por la dirección de empresa y el comité de empresa.

*Segundo.* El día 6 de febrero de 2020 se presentó en esta Delegación Territorial solicitud de registro, depósito y publicación del referido convenio.

*Tercero.* Se ha efectuado el requerimiento previsto en el art. 8 del Decreto 9/2011, de 25 de enero (*Boletín Oficial del País Vasco* de 15-2-2011), y se ha cumplimentado el 27 de febrero de 2020.

#### FUNDAMENTOS DE DERECHO

*Primero.* La competencia prevista en el art. 90.2 del texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre corresponde a esta autoridad laboral de conformidad con el art. 15.1.h del Decreto 84/2017, de 11 de abril (*Boletín Oficial del País Vasco* de 21-04-2017) por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Trabajo y Justicia, en relación con el Decreto 9/2011, de 25 de enero (*Boletín Oficial del País Vasco* de 15-2-2011) y con el Real Decreto 713/2010, de 28 de mayo (*Boletín Oficial del Estado* de 12-6-2010) sobre registro y depósito de convenios y acuerdos colectivos.

*Segundo.* El acuerdo ha sido suscrito de conformidad con los requisitos de los artículos 85, 88, 89 y 90 de la referenciada Ley del Estatuto de los Trabajadores.

En su virtud,

#### RESUELVO

*Primero.* Ordenar su inscripción y depósito en el Registro de Convenios y Acuerdos Colectivos, con notificación a las partes.

*Segundo.* Disponer su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 4 de marzo de 2020.—El delegado territorial en funciones, Juan María Esnaola Mendizabal. (1350)

COTONES AGUIRREZABAL SA ENPRESAREN HITZARMEN  
KOLEKTIBOA.

I KAPITULUA

1. artikulua. *Lurralde, funtzioak eta langileak.*

Hitzamen hau Cotones Aguirrezabal, S.A. enpresan lan egi-  
ten duten langile guztiei aplikatuko zaie.

2. artikulua. *Indarraldia eta iraupena.*

Hitzarmen honek urte bateko indarraldia izango du. 2020ko  
urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, ondorio guztietarako, eta  
horrela iraungo du 2020ko abenduaren 31ra arte.

Hitzarmenaren amaiera 2020ko azaroaren 1ean automati-  
koki iragarritzat emango da, eta data horretatik aurrera hasi  
ahal izango dira hau ordezkaturiko duen Hitzarmen Kolektibo-  
aren negoziazioak.

Amaiera iragarri eta hitzartutako iraupena amaitu ondoren,  
hitzarmenak indarrean jarraituko du, bi alderdiek hori ordeztan  
duen beste bat sinatu arte.

3. artikulua. *Baldintza onuragarriagoak.*

Enpresek ezarritako baldintza onuragarriagoei eutsiko zaie,  
oro har kontuan hartuta Hitzarmen honetan zehazturikoak gain-  
ditzen badituzte; hala, ezein langile ez da kalteturik gertatuko  
ezartzen den soldata-politika dela-eta.

II KAPITULUA

4. artikulua. *Lanaldia.*

Hona, gehienez, 2020an egingo diren benetako lan-orduak,  
urteko zenbaketan kalkulaturik: 1.700 ordu.

5. artikulua. *Lan egutegia eta ordutegia.*

Enpresa Zuzendaritzak baino ezin izango ditu ezarri lan-egu-  
tegiak eta -ordutegiak, aldez aurretik langileen legezko ordezkari-  
ekin eta, hala dagokienez, ordezkari sindikalekin eztabaidatu  
ondoren.

Ekaineko eta uztailako ostiraletan lanaldi jarraituko ordute-  
gia beteko dute langileek, 14:00ak arte hain zuzen.

Enpresako zuzendaritzak langile guztien lan-egutegia zehaz-  
tuko du hilabeteko epean, Gipuzkoako Egutegi Ofiziala argitaratzen  
denetik hasita eta aurreko paragrafoan aipatutako esku-  
hartzaren ondoren. Egutegian lanaldiaren ordutegi-taula eta  
oporraldi kolektiboaren datak jasoko dira, gutxienez.

Langileen Estatutuaren 34.2 artikuluan xedatutakoaren on-  
dorioetarako, hitzartzen da lanaldiaren % 100 modu erregula-  
rrean banatzea, eta ezingo da banaketa irregularrik egin hitzar-  
men honetan berriaz xedatutakoa alde batera utzita.

Enpresa Zuzendaritzak lan-egutegiak eta ordutegiak ezarri  
eta gero urteko lanaldia aldatzen bada, enpresak 15 egun  
izango ditu behar diren egokitzapenak egiteko.

Bigarren paragrafoan adierazitako datatik egutegi hila-  
bete bat igaro ondoren ez badira ordutegi-taula eta lan-egutegia  
ezartzen aurreko paragrafoan aipatutako baldintzetan eta en-  
presaren ekimen ezagatik, langileek, hurrengo hilabetearen bar-  
ruan, nahi duten egutegia ezarri ahal izango dute, urteko gehie-  
neko ordu-kopurua errespetatuz.

6. artikulua. *Oporrak.*

Langileek, 2020. urtean, 30 egun naturaleko opor ordain-  
duak izango dituzte; eta horietatik derrigorrez 26 lanegun  
izango dira.

CONVENIO COLECTIVO PARA LA EMPRESA COTONES  
AGUIRREZABAL S.A.

CAPÍTULO I

Artículo 1.º *Ámbito territorial, funcional y personal.*

El presente Convenio Colectivo es de aplicación para todos  
los trabajadores y trabajadoras que prestan servicio en la em-  
presa Cotones Aguirrezabal S.A.

Artículo 2.º *Vigencia y duración.*

El presente convenio tendrá una vigencia de un año. Entrará  
en vigor a todos los efectos a partir del 1.º de enero de 2020 fi-  
nalizando el 31 de diciembre del año 2020.

Quedará automáticamente denunciado a partir del 1.º de  
noviembre del año 2020, pudiéndose iniciar desde esa fecha  
las negociaciones para el Convenio Colectivo que lo sustituya.

Se acuerda expresamente, que una vez denunciado y con-  
cluida la duración pactada, se mantendrá la vigencia del conve-  
nio hasta la suscripción por ambas partes de otro que lo susti-  
tuya.

Artículo 3.º *Condiciones más beneficiosas.*

Se mantendrán las condiciones más beneficiosas implanta-  
das por las empresas en cuanto aquéllas superen, en conjunto,  
las especificadas en este Convenio, de tal forma que ningún/a  
trabajador/a pueda verse perjudicado por la implantación de la  
política salarial que se establezca.

CAPÍTULO II

Artículo 4.º *Jornada de trabajo.*

El número máximo de horas de trabajo efectivo, en cómputo  
anual, para el año 2020 será el siguiente: 1.700 horas.

Artículo 5.º *Calendarios y horarios de trabajo.*

La fijación de los horarios de trabajo y los calendarios labo-  
rales será facultad exclusiva de la Dirección de la Empresa, pre-  
via intervención de la representación legal del personal y dele-  
gados/as sindicales en su caso.

Los viernes de julio y junio el horario será de jornada conti-  
nuada hasta las 14:00.

La Dirección de la Empresa, en el plazo de un mes a partir  
de la publicación del Calendario Oficial para Gipuzkoa, y previa  
la intervención a que hace referencia el párrafo anterior, seña-  
lará el calendario de trabajo para todo el personal, que deberá  
incluir, al menos, el cuadro horario de la jornada de trabajo y las  
fechas de disfrute de las vacaciones colectivas.

A los efectos de lo señalado en el art. 34.2 ET, se acuerda  
que el 100 % de la jornada se distribuirá de manera regular, no  
habiendo lugar a distribuciones irregulares de la misma al mar-  
gen de lo expresamente dispuesto en el presente convenio.

Si la jornada anual sufriese modificaciones una vez fijados  
por la Dirección de la Empresa los calendarios y horario de tra-  
bajo, ésta, en el plazo de 15 días, establecerá los ajustes neces-  
arios en los mismos.

Si transcurrido un mes natural desde la fecha indicada en el  
párrafo segundo no se hubiese establecido el cuadro horario y  
calendario laboral en los términos anteriores, por falta de inicia-  
tiva de la empresa, el personal tendrá facultad dentro del mes  
siguiente de fijar el calendario que deseen, respetando el tope  
horario anual.

Artículo 6.º *Vacaciones.*

Para el año 2020 se retribuirán, en concepto de vacaciones  
reglamentarias 30 días naturales, debiendo de disfrutarse ex-  
clusiva y necesariamente 26 días laborables.

Oporraldiari dagokionez, larunbatak lanegun osotzat joko dira.

Enpresaren beharrak direla-eta, urteko lan-egutegian ezarritako opor kolektiboak baliatzeko data aldatu egiten bada, eta, horren ondorioz, lantokia ixten bada, langileek opor-egun bat gehiago hartzeko eskubidea izango dute.

OIT erakundearen 132. hitzarmenean ezarritakoa betez, amatasunagatik eta langilearen borondatez kanpoko arrazoiengatik, hala nola, istripua edo gaixotasuna, lanera joan gabeko egunak benetako lanean emandako denboratzat hartuko dira oporrak zenbatze eta baliatze aldera.

Oporretarako ezarri den datan enpresako plantillan urtebeteko benetako lana bete ez duten langileek zerbitzuan emandako zenborearen arabera dagozkien opor-egunak baliatuko dituzte, eta, haien lanbide heziketararako iraingarriak edo gutxi-egzarriak ez diren zereginak betez lan egin beharko zituzten egunetan egokitu ahalko dira egun horiek. Bitarte horretan, langileari zeregin efektiborik eman gabe ixten bada lantegia, zegozkion zeregin guztien ordainsaria jasoko du langile horrek.

Enpresako kide izateari uztean, dagokien opor-proporzioaren zenbatekoa ordainduko zaie langile guztiei. Langilea hiltzen bada, zenbateko hori haren eskubidedunei ordainduko zaie.

Oporrak hartzeko garaiari buruzko desadostasunaz jurisdikzio eskudunak hartzen duen erabakiaren kalterik gabe, langileak jarraituko bi lan-aste baliatzeko eskubidea izango du beti ere.

Oporraldi kolektiboaren hasieran langilea aldi baterako ezintasun-aldian dagoen kasuetan, oporraldia etenda geratuko da aldi baterako ezintasuneko egoera horrek dirauen artean.

Horretarako, artikulua hau Auzitegi Gorenak 2009ko ekainaren 24an doktrina bateratzeko emandako epaiari jarraiki jasotzea eta aplikatzea erabaki dute hitzarmena sinatu duten aldeek. Doktrina horren arabera, itundutako lan-egutegian ezarritakoaren ondoren ordaindutako urteko oporrak izateko eskubidea onartzen da, betiere esleitutako egunen aurretik langilea aldi baterako ezintasuneko egoeran jartzen bada.

Etadura horri dagozkien opor-egunak enpresako Zuzendaritzak erabakitzen duenean hartuko dira, interesdunaren eta langileen ordezkarien iritzia jaso ondoren.

Oporraldi kolektiboari ekiteko garaian edo ondoren langilea amatasun-egoeran badago, eten egingo da oporraldia, eta enpresako zuzendaritzak ezarriko du etenaldi horri dagozkion egunak noiz hartu, langileen ordezkariak esku hartu ondoren.

Langileak benetako laneko lanaldi arruntean jasotzen duen soldataren arabera ordainduko dira oporrak, alde batera utzita oporren bitartean lan-ezintasuneko egoeran dagoen. Zereginaz, primaz edo destajuz lan egin ohi duten langileek aurreko hiru hilabeteetan bete dituzten batez besteko lan-egunen arabera jasoko dute ordainsaria. Horrenbestez, aipatutako batez besteko hori kalkulaterakoan ez dira kontuan hartuko igande, jaiegun, aparteak hororok, baja eta abarren ondorioz sortutako ordainsariak.

Egunez eguneko ordainsaria jasotzen duten langileei artikulua honetan ezarritako batez bestekoaren arabera ordainduko zaizkie opor-egunak, eta 30 egun natural horietako jaiegun eta igandeak.

Oporraldiari dagokion ordainsaria enpresan egin ohi den eran eta datan ordainduko da.

#### 7. artikulua. Aparteko orduak.

Hitzarmen hau izenpetzen dutenek bat egin dute 1999ko urtarrilaren 15ean Confebask eta ELA, CC.OO., UGT eta LAB Zen-

A efectos de vacaciones los sábados se computarán como día laborable completo.

Si por necesidades de la empresa se modifica la fecha de disfrute de las vacaciones colectivas establecidas en el calendario anual, y en consecuencia, el cierre del centro de trabajo, el personal tendrá derecho a disfrutar un día más de vacaciones.

De acuerdo con lo establecido en el Convenio n.º 132 de la OIT, las ausencias al trabajo por maternidad y por motivos independientes a la voluntad del personal, como accidente o enfermedad, serán consideradas como tiempo de trabajo efectivo, a los efectos del cómputo y disfrute de las vacaciones.

El personal que, en la fecha determinada para el disfrute de las vacaciones, no hubieran completado un año efectivo en la plantilla de la empresa disfrutará de un número de días proporcional al tiempo de servicios prestados, pudiendo ser acoplados en los días que hubiesen de trabajar en misiones que no supongan vejeción ni menoscabo para su formación profesional. En el supuesto de que durante las mismas cerrase la fábrica sin darle ocupación efectiva, el/a trabajador/a en cuestión percibirá la totalidad de los haberes correspondientes.

Al dejar de pertenecer a la empresa se abonará a todo el personal el importe proporcional de vacaciones que les corresponda. En caso de fallecimiento del personal este importe se satisfará a sus derechohabientes.

Sin perjuicio de que la jurisdicción competente resuelva el posible desacuerdo en el disfrute de vacaciones, el personal tendrá derecho, en todo caso, a disfrutar dos semanas laborales consecutivas.

En los casos en que, al inicio del disfrute del período de vacaciones colectivas, el/a trabajador/a se encuentre en situación de I.T., el período de vacaciones quedará interrumpido por el tiempo en que se mantenga dicha situación de I.T.

A estos efectos las partes signatarias convienen en recoger y aplicar este artículo conforme a la sentencia del Tribunal Supremo de 24 de junio de 2009 en unificación de doctrina por la que se reconoce el derecho a disfrutar las vacaciones anuales retribuidas en periodo posterior al establecido en el calendario laboral pactado, si previamente a las fechas asignadas el trabajador/a iniciase situación de incapacidad temporal.

Los días correspondientes a dicha interrupción se disfrutarán en fecha que establezca la Dirección de la empresa, previa intervención del interesado y de la representación del personal.

Si, al inicio o durante el disfrute del período de vacaciones colectivas, la trabajadora se encontrase en situación de Maternidad, aquél quedará interrumpido y los días correspondientes a dicha interrupción se disfrutarán en fecha que establezca la Dirección de la empresa, previa intervención de la representación del personal.

Las vacaciones se cobrarán por el salario que realmente venga percibiendo el/a trabajador/a en jornada ordinaria de día de trabajo, con independencia de que su disfrute coincida con una situación de I.T. El personal que con carácter normal venga trabajando a tarea, prima o destajo, percibirá con arreglo al promedio de actividad en los días de trabajo de los tres meses anteriores; por lo tanto, para el cálculo del referido promedio no se tendrán en cuenta los devengo de los domingos, días festivos, gratificaciones extraordinarias, días de baja, etc.

Para el personal con retribución diaria, los días de vacaciones, aún los festivos y domingos comprendidos entre ellos hasta completar los 30 días naturales, deberán abonarse con el promedio que señala este artículo.

El abono de la retribución de vacaciones se efectuará en la forma y fechas que habitualmente se vengán realizando en la empresa.

#### Artículo 7.º Horas extraordinarias.

Las partes signatarias del presente Convenio se adhieren al Acuerdo Interconfederal sobre supresión de horas extraordina-

tral Sindikalek aparteko orduak ezabatzeari buruz itundu duten Konfederazioarteko Erabakiarekin. Horren arabera eta akordio hori garatu asmoz:

Honako hau adostu dute:

1. Aparteko orduetan lan egiteko aukera kendu egiten da, artikulu horren 2. puntuan arautzen diren salbuespenezko kasuetan izan ezik.

2. Salbuespenez, ohiko lanaldia luzatu egin daiteke, honako kasuren batean:

*Lehenengoa.* Ezinbesteko kasuetan, hau da, istripuak eta aparteko presazko beste kalte batzuk aurreikusi edo konpondu behar direnean.

*Bigarrena.* Behar bezain laster aurreikusi ezin izan diren arrazoiengatik, enpresak bere jarduera normala izateko, lanaldi arrunta luzatzea ezinbestekoa denean. Nolanahi ere, langile berriek gehiegizko lanik ez egitea bermatu beharko da, hauetako arrazoiren bat tarteko izan arren:

a) Lan-denbora oso laburra izanik, kontratazio gehiago egitea bideragarria ez delako.

b) Eskatutako denboran kontratazio berriak egitea ezinezkoa delako.

c) Enplegu-zerbitzu publikoen lankidetzak eskatuta, zerbitzu horiek ez diotelako dagokion lanposturako trebakuntza egokia duen langilerik eman langileak eskatzen zituen enpresari.

3. Bigarren puntuan aurreikusitako salbuespenezko egoeren babesean lan egindako aparteko orduak, atsedeen-denboraz konpentsatuko dira.

Lanegunean egindako aparteko ordu bakoitza ordubete eta 30 minuturekin konpentsatuko da, eta ordubete eta 45 minuturekin, igandean edo jaiegunean lan eginiko ordu bakoitza.

Diruz konpentsatzea kasu hauetan bakarrik erabaki daiteke: ezinbesteko kasuetan, eta, 2. c) puntuan aurreikusten den kasua gertatzeagatik, atsedenez konpentsatzea ezinezkoa denean. Halakoetan, % 50eko errekararekin ordainduko dira ordu horiek, lanegunetan sartu badira, eta % 75eko errekararekin, igande edo jaiegunetan sartzen badira.

4. Artikulu honek dioena enpresan aplikatuko bada, alde zuzenak akordioak zehaztu beharko dira langileen legezko ordezkarien eta Enpresako Zuzendaritzaren artean. Akordio horien bidez, gai hauek arautuko dira:

a) Aparteko orduak ezabatzearen ondorioz sortzen diren aurreikuspenak eta enplegurako konpromisoak, eta antolakuntzan egin beharreko doikuntzak finkatuko dituzte.

b) 2. atalean xedatutakoa aplikatuz lanaldia luzatzea baimentzen duten salbuespeneko egoerak zehaztuko dituzte.

c) Konpentsatzeko modua, eta, bereziki, lanaldiaren luzapena konpentsatzeko atsedeen-denboraren iraupena.

d) Enpresako akordioek ezingo dute konpentsazio ekonomikorik ezarri, artikulu honetako 3. paragrafoko hirugarren atalean aurreikusten ez diren kasuetan.

5. Aurreko puntuan aipatutako negoziazio horren ekimena enpresako Zuzendaritzak edota langileen legezko ordezkariak har dezakete, eta beste alderdiak negoziatzera eseri beharko du derrigorrez. Bi alderdietako batek negoziatzeko hasteari uko egiten badiu, edota negoziazio horretan akordioa eragozten duten desadostasunak sortzen badira (4.c atalean izan ezik), bi alderdietako edozeinek Prekon aurreikusitako Gatatzak Ebazteko Prozedurara jo dezake, eta beste alderdia behartuta egongo da horretan parte hartzera.

rias suscrito entre Confebask y las Centrales Sindicales ELA, CC.OO., UGT y LAB, con fecha 15 de enero de 1999 y en base al mismo y en su desarrollo:

Acuerdan:

1.º Queda suprimida la posibilidad de realizar horas extraordinarias, salvo en los supuestos excepcionales que se regulan en el punto 2.º del presente artículo.

2.º Con carácter excepcional podrá prolongarse la jornada ordinaria de trabajo cuando concorra alguno de los siguientes casos:

*Primero.* Fuerza mayor, es decir, cuando se trate de prevenir o reparar siniestros y daños extraordinarios y urgentes.

*Segundo:* Cuando, por razones no previsibles con antelación suficiente, la prolongación de la jornada ordinaria resulte imprescindible para el normal funcionamiento de la empresa. Deberá acreditarse, en cualquier caso, que no resulta posible la realización del exceso de trabajo con cargo a nuevo personal por alguna de las siguientes razones:

a) Por tratarse de un tiempo de trabajo tan corto que no haga viable una nueva contratación.

b) Por no ser materialmente posible proceder a nuevas contrataciones en el tiempo requerido.

c) Porque, habiéndose requerido la colaboración de los servicios públicos de empleo, éstos no hayan facilitado a la empresa demandante personal con la cualificación adecuada al puesto correspondiente.

3.º Las horas extraordinarias que se realicen al amparo de las situaciones excepcionales previstas en el punto 2.º) serán compensadas por tiempo de descanso.

La compensación se efectuará a razón de 1 hora y 30 minutos por cada hora trabajada en día laboral y 1 hora y 45 minutos por cada hora trabajada en domingo o festivo.

Sólo podrá acordarse su compensación económica en los casos de fuerza mayor y en aquellos otros en los que la compensación por descanso resulte imposible por concurrir la circunstancia prevista en el punto 2.º c). En estos casos, esas horas se abonarán con un recargo del 50 % cuando se trabajen en día laborable y del 75 % cuando lo sean en domingo o festivo.

4.º La aplicación del presente artículo en la empresa requerirá su concreción mediante acuerdos entre la representación legal del personal y la Dirección de ésta, que regularán las siguientes materias:

a) Establecerán las previsiones y compromisos de empleo que se deriven de aquella supresión, así como los ajustes organizativos que la supresión de horas extraordinarias pudiera hacer en su caso necesario.

b) Determinarán de la concurrencia de las situaciones excepcionales en las que, en aplicación del apartado 2.º, se entienda autorizada la prolongación de jornada.

c) Régimen compensatorio, en particular la cuantificación del tiempo de descanso compensatorio de la prolongación de jornada.

d) Los acuerdos de empresa no podrán establecer la compensación económica para supuestos distintos de los contemplados en el tercer párrafo del apartado 3.º de este artículo.

5.º La iniciativa de negociación de lo señalado en el punto anterior podrá ser tomada por la Dirección de la empresa o por la Representación Legal del personal en la misma, estando la otra parte obligada a sentarse a negociar. En el caso de que alguna de las partes se negara a iniciar la negociación o surgieran en la misma discrepancias que impidieran el acuerdo (excepto en el apartado 4.º c), cualquiera de las partes estará facultada para instar los Procedimientos de Resolución de Conflictos previstos en el Preco, quedando obligada la otra a hacerse parte en los mismos.

6. Edonola ere, langileen ordezkariak eta Enpresa Batzordeko kideak, baita ordezkari sindikalek ere, hilero izango dute egindako aparteko orduen berri, eta gai horren inguruan hartutako akordioen eta akordioak sortzeko arrazoien berri. Informazio horrek enpresaren sinadura eta zigilua izango du.

7. Artikulu honetan aparteko orduak buruz erabaki dena, hitzarmen honetako «Orduak baliatzea» 6. artikuluan xedatutakoa baldintzatu gabe beteko da.

### III KAPITULUA

#### 8. artikulua. *Bajak.*

Lanbide-gaixotasunak eragindako baja guztietan % 100 ordainduko da lehenengo egunetik, lan-istripuek eragindakoetan hileko soldataren % 100 ordainduko da bosgarren egunetik, lumbalgia izan ezik.

Gaixotasun arruntetan hileko soldataren % 50 ordainduko da lehenengo hiru egunetan urteko lehenengo bajaran (gainerakoa indarreko araudiaren arabera izango da). Hurrengo bajaran, lehenengo egunean hileko soldataren % 50 ordainduko da (gainerakoa indarreko araudiaren arabera izango da). Ospitaleratze kasuetan, berriz, enpresak % 100 arteko prestazioa osatuko du ospitaleko egonaldia iraun bitartean, eta baja hasi zenetik 31 egun igarotzen diren aurrera ere % 100 osatuko du prestazioa.

Haurdunaldiko arriskuagatik edo arriskuko haurdunaldiagatik hartzen diren bajak % 100 era arte osatuko dira.

#### 9. artikulua. *Lizentziak.*

Ordaindutako lizentziak artikulu honetan azaldutakoaren arabera baliatu eta ordainduko dira.

Enpresak ordaindutako lizentziak emango ditu, behean aipatzen diren kasuetan edo Langileen Estatutuan aurreikusitako bestelako kasuetan, eta halakoetan soldata erreala ordaindu beharko du. Baina ez du produkzio-primarik edo bestelako primarik ordainduko pizgarririk ezagatik. Lizentzia horiek, eskatzeko arrazoi hauetako bat gertatzen den unean hartuko dira:

A) Ezkontza: Ordainduriko lizentziako egutegiko 18 egun; epe hori gehienez ere ordaindu gabeko lizentziako egutegiko 10 egun gehiagoz luzatu ahal izango da.

Langile interesdunari dagokion lehenengo lanegunetik hasita hasiko da lizentzia hori.

B) Emazteak haurra erditzeagatik: 3 egun natural. Ordaindutako beste 2 egunez luzatu daiteke, erditzea zesareaz baldin bada.

#### C) Gaixotasun larriagatik:

Ezkontidearen, seme-alaben, gurasoen, anai-arreben, biloben eta aitona-amonen kasuan: 3 egun natural.

Suhien, errainen, aitagarreben, amaginarreben, koinatuen eta koinaten kasuan: 2 egun natural.

Egunak joan eta gaixotasunak bere larrian jarraitzen badu, eta gaixoa langilearekin bizi den ezkontidea, semea, alaba, gurasoa, anaia edo arropa bada, aurreko lizentzia amaitu eta hogeita hamar egun igaro ostean berriro lizentzia hartzeko eskubidea izango du, baina oraingo honetan ez da distantziagatik lizentzia luzatuko.

Ordaindu gabeko lizentzia gehiago hartzeko eskubidea izango du, betiere aurreko lizentzia bukatu zenetik hogeita hamar egun jarraian iragan badira. Kasu honetan ere ez da aplikatuko bidaia egin behar izateagatik luzapena.

Atal honetan xedatutakoaren ondorioetarako, gaixotasuna larria izango da gaixoa artatzen duen Gizarte Segurantzako espezialistak berriaz horrela kalifikatzen badu, edo, bestela, gaixotasunaren larritasuna behar bezala egiaztatzen duen agiria aurkezten bada.

6.º En cualquier caso, la Representación del Personal y miembros del Comité de Empresa, así como los/as Delegados/as sindicales, en su caso, serán informados mensualmente de las horas extraordinarias que se hayan efectuado y los acuerdos celebrados al respecto, así como de las causas que lo motivaron. Esta información irá firmada y sellada por la Empresa.

7.º Lo acordado en el presente artículo para las horas extraordinarias lo será sin perjuicio de lo establecido en el artículo 6 del presente Convenio sobre «Disponibilidad de Horas»

### CAPÍTULO III

#### Artículo 8.º *Bajas.*

Todas las bajas por enfermedad profesional se abonarán al 100 % desde el primer día, todas las bajas por accidente laboral se abonarán al 100 % del salario mensual desde el quinto día exceptuando las lumbalgias.

En la enfermedad común o accidente no laboral se abonará el 50 % los tres primeros días del salario mensual la primera baja del año (resto de días según normativa vigente). Las siguientes bajas se abonará el primer día al 50 % del salario mensual (resto de días según normativa vigente). Cuando haya hospitalización la empresa complementará la prestación hasta el 100 % los días que dure la hospitalización, y a partir del día 31 de la baja también se complementará hasta el 100 %.

Tanto las bajas por riesgo en el embarazo o embarazo de riesgo se le complementará la baja al 100 %.

#### Artículo 9.º *Licencias.*

Las licencias retribuidas se disfrutarán y abonarán con arreglo a lo que señala este artículo.

Las Empresa concederá licencias con abono de salario real, sin incluir primas de producción o primas por carencia de incentivo, en su caso, en los siguientes supuestos y en los previstos en el Estatuto de los Trabajadores, siempre que los mismos sean justificados. Dichas licencias habrán de disfrutarse en el momento de producirse el hecho causante:

A) Por matrimonio: 18 días naturales de licencia retribuida pudiendo ampliarse hasta un máximo de 10 días naturales más de licencia no retribuida.

Esta licencia se empezará a disfrutar a partir del primer día laborable que corresponda al trabajador interesado.

B) Por alumbramiento de esposa: 3 días naturales, pudiéndose ampliar en 2 días más, así mismo retribuidos, en caso de parto con cesárea.

#### C) Por enfermedad grave:

En el caso del cónyuge, hijos, padres, hermanos, nietos y abuelos: 3 días naturales.

En el caso de hijos políticos, padres políticos y hermanos políticos: 2 días naturales.

Cuando la enfermedad grave persistiera y se refiera a cónyuge, hijos, padres o hermanos, que convivieran con eól, se tendrá derecho a una segunda licencia retribuida, por igual tiempo, pasados treinta días consecutivos desde la finalización de la primera licencia, sin que en este caso sea de aplicación la ampliación por desplazamiento.

Tendrá derecho a sucesivas licencias no retribuidas, y por igual tiempo, siempre que hayan transcurrido treinta días consecutivos desde la finalización de la anterior, sin que tampoco sea de aplicación la ampliación por desplazamiento.

A los efectos de este apartado se entenderá como enfermedad grave toda aquella que sea calificada explícitamente como tal por el especialista de la Seguridad Social que trate al enfermo, o en su defecto por medio de un documento que acredite suficientemente la gravedad de la enfermedad.

Gaixotasun larria egiaztatzen duen agiria baimena hartu aurretik aurkeztu beharko da enpresan, justifikatutako premiazko arrazoiengatik hori egiterik ez dagoen kasuetan izan ezik; orduan telefonoz ohartarazi beharko da enpresa gertakariaren egunean bertan, eta lehenengo lan-egunean, lanera itzultzen den unean, emango da egiaztatzea beranduenez.

D.1) Aurreko atalean aipatutako ahaideen heriotzagatik: 3 egun natural.

D.2) Osaba-izeben edo biloben heriotzagatik: egun natural bat.

E) Anai-arreben, ezkontzako anai-arreben edo seme-alaben ezkontzagatik: egun natural bat.

F) Ohiko etxebizitzaz aldatzeagatik: Oegun natural bat.

G) Familiako medikuarengana edo espezialista partikulararengana joateko: Aurreikusitako gabeko justifikatutako arrazoiengatik, ordaindutako 8 ordu izango dira urtean; ordu horiek 16ra arte luzatu ahal izango dira enpresako medikuak justifikazioa egiaztatzen badu.

H) Gizarte Segurantzako espezialistarengana joateko. Beharrezkoa den denbora emango da, baldintza hauekin:

Arduradunari horren berri ematea, espezialistarekiko hitzordua baino 24 ordu lehenago gutxienez, eta kontsultara joan izanaren egiaztatzea berehala aurkeztea.

Langileak lanekoak ez diren egun eta orduetan espezialistarengana joaterik ez duela justifikatzea.

Baimen hau egiaz langilearen laguntza behar dute lehen graduko ahaideen kasuan ere aplikatuko da (adibidez, seme-alaba adingabeak edo elbarriak).

I) Bularra ematea: Emakume langileek haurri bularra emateko denboran (9 hilabeteetara arte) ordubeteko atsedendaldi bat egiteko eskubidea izango dute, eta atsedendaldi hori bi zatikitan zatitu ahal izango dute, edo eskubide hau beren lanaldia arruntaren helburu bererako ordubeteko murriztapenagatik ordezkatu.

J) Langileen Estatutuari men eginez:

1. Nahitaezko betebeharrak publiko eta pertsonal bat bete zezake beharrezkoa den denbora. Legezko edo hitzarmenezko arau batean epealdi jakin bat ezarrita dagoenean, arau horrek diotenari lotu beharko zaio absentiari eta horren diru-ordainari dagokienez.

2. Lehen adierazitako egitekoa betetzea dela medio, hiru hilabeteko epean lanorduen % 20 baino gehiago lan egiten ez badira, Enpresak Lege honen 46. artikulua 1. idatz-zatian arautzen den eszedentzia-egoerara pasatu ahal izango du langile hori.

3. Zeregin horiek betetzeagatik langileak kalte-ordain bat jasoko balu, enpresatik jasotzeko eskubidea duen soldatetik kenduko da diru kopuru hori.

K) Jaunartzea edo bataioa. Seme-alaben, anai-arreben edo biloben jaunartze edo bataioagatik: egun natural bat.

B, C eta D kasuetan, joan-etorria 150 km-tik gorakoa bada, baimenari bi egun natural erantsiko zaizkio.

Halaber, dokumentu bidez egiaztatutako izatezko aitatasuna edo amatasuna aintzat hartuko da, ezkontza-lotura izan ala ez.

Ordaindutako baimenak beraien helburua ez den beste baterako neurritz gain hartzea hutsegite larria izango da.

Este documento de acreditación de enfermedad grave deberá presentarse en la Empresa con antelación al disfrute del permiso, salvo que por motivos, justificados, y de urgencia, ello no fuera posible, en cuyo caso se deberá avisar a la Empresa telefónicamente el mismo día del hecho y se entregará la certificación, como máximo el primer día de trabajo en el momento de la incorporación al mismo.

D.1) Por fallecimiento de los parientes señalados en el apartado anterior: 3 días naturales.

D.2) Por fallecimiento de tíos, sobrinos: 1 día natural.

E) Por matrimonio de hermanos, hermanos políticos e hijos: 1 día natural.

F) Por traslado de domicilio habitual: 1 día natural.

G) Para asistir al médico de cabecera o especialista particular: Por causas imprevistas y justificadas, se dispondrán de 8 horas retribuidas al año, que podrán extenderse a 16 o más si el Servicio Médico de Empresa certifica su justificación.

H) Para asistir al especialista de la Seguridad Social: Se concederá el tiempo necesario cuando habiendo necesidad para ello:

Se comunique al Mando con al menos 24 horas de antelación la fecha y hora de la cita con el especialista, presentando inmediatamente despues el correspondiente justificante de asistencia.

Se justifique que el trabajador no puede acudir al especialista los días u horas no laborales.

Este permiso puede hacerse extensible a familiares en primer grado que verdaderamente necesiten la compañía del trabajador (p. ej. hijos menores o minusválidos).

I) Lactancia: Las mujeres trabajadoras y durante el período de lactancia (hasta los 9 meses), tendrán derecho a una pausa de 1 hora que podrán dividir en dos fracciones o, a su voluntad, sustituir este derecho por una reducción de su jornada normal de trabajo en una hora, con la misma finalidad.

J) Atendiendo al Estatuto de los Trabajadores:

1. Por el tiempo indispensable, para el cumplimiento de un deber inexcusable de carácter público y personal. Cuando conste en una norma legal o convencional un período determinado, se estará a lo que ésta disponga en cuanto a duración de la ausencia y su compensación económica.

2. Cuando el cumplimiento del deber antes referido suponga la imposibilidad de la prestación del trabajo debido en más del 20 por 100 de las horas laborales en un período de tres meses, podrá la Empresa pasar al trabajador a la situación de excedencia regulada en el artículo 46.1 de esta Ley.

3. En el supuesto de que el trabajador por cumplimiento del deber o desempeño del cargo perciba una indemnización, se descontará el importe de la misma del salario al que tuviera derecho en la Empresa.

K) Comunió o bautizo. Por comunió o bautizo de hijo, hermano o nieto: 1 día natural.

En los casos de los apartados B), C) y D), si hubiera desplazamiento superior a 100 kms. el permiso se ampliará en dos días más.

Así mismo, se reconocerá la paternidad o maternidad de hecho suficientemente documentado, haya o no vínculo matrimonial.

La utilización abusiva de los permisos retribuidos, con fines distintos a los que se conceden, será considerada como falta grave.

#### 10. artikulua. Eszedentziak.

Enpresan gutxienez urte bateko antzintasuna duten langileei eszedentzia emango diete enpresek, eta lanpostua gordeko diete, edota lehen zeukaten lanpostuan edo antzeko batean automatikoki lanean hasteko aukera emango diete, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Eszedentzia hartzeko arrazoiak familia- edo ikasketa-arlokoak edo horien antzekoak izatea.
- b) Eszedentzia hori ez izatea sei hilabetetik gorakoa.
- c) Horrelako eszedentzia aldi berean hartu duen langileak plantillaren % 2 tik gora ez izatea.

#### 11. artikulua. Beste eszedentzia batzuk.

Enpresan gutxienez urtebeteko antzintasuna duten langileei eszedentzia emango die enpresak, eta lanpostua gordeko die, edota lehen zeukaten lanpostuan edo antzeko batean automatikoki lanean hasteko aukera emango die, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Eszedentzia lanbide-heziketako ikasketak, edo birziklatze-ikasketak egiteko hartzea, betiere ikasketa horiek, ondoren, enpresan bertan erabil badaitezke.
- b) Eszedentzia urtebetetik gorakoa ez izatea, bi alderdiak bestelakorik adosten ez badute.
- c) Era horretako eszedentzia aldi berean hartzen duten langileak, gehienez ere, bat izatea 50 langile baino gutxiagoko enpresetan; bi, 50etik 100 langilera bitartekoetan, eta plantillaren % 2, ehun langile baino gehiagoko enpresetan.
- d) Aipatu eszedentzia, bestelakorik erabaki ezean, ezin izango dute hartu enpresako zuzendaritza-taldeko kide eta arduradunek.

Gainerako eszedentziei dagokienez, indarreko legedian ezarritakoa aplikatuko da.

### IV KAPITULUA

#### 12. artikulua. Hitzarmeneko soldata.

2020rako % 1,3ko soldata-igoera adostu da. Igoera horrek atzeraeragineko ondoreak izango ditu; horrela, eragindako atzerapenak apirilera nominaren bidez ordainduko dira.

Gutxienezko ordainsarien taulak eranskinean jasotzen direnak izango dira.

#### 13. artikulua. Laneko arropa.

Ahal den neurrian, negurako arropa eta udarako arropa emango die langile guztiei.

#### 14. artikulua. Lanpostuen balioespena.

Erabiltzen diren sistemetak edozeinetan kontzeptuak irizpide orokor hauetara itzuli ahal izango dira.

- a) Jakintza-irizpidea: Teorikoak eta praktikoak (trebetasuna, eskarmentua, etab.).
- b) Eskaintako ahaleginen irizpidea, bai zentzumen-ahaleginak edo nerbio-ahaleginak, bai ahalegin fisikoak edo buru-ahaleginak.
- c) Langileak bere gain dituen elementuekiko arduraren irizpidea, bai eta langilearekin harremana dutenekikoa ere (instalazioak, materialak eta produktuak, pertsonak, edo informazioa, eta abar).
- d) Ingurumen-baldintzen irizpidea (nekagarritasuna, toxikotasuna, edo arriskugarritasuna).

Sistema hauekin emandako balioespenak enpresako lanpostuetako bakoitzaren kokapen erlatiboa ezarriko du, lan-balio kualitatiboen hierarkiari dagokionez. Lanpostuaren beraren ezaugarriak edo eskakizunak buruzkoak da balioespen hori, lanpostu horretan nor dagoen kontuan izan gabe.

#### Artículo 10.º Excedencias.

Las empresas concederán excedencia al personal con al menos una antigüedad de un año en la empresa, con reserva o reincorporación automática en su anterior o similar puesto de trabajo, siempre que se cumplan los siguientes requisitos:

- a) Que los motivos de la misma sean de carácter familiar, de estudio o similares.
- b) Que dicha excedencia no sea superior a seis meses.
- c) Que el número de personas que coincidan en este tipo de excedencias no sea superior al 2 % de la plantilla.

#### Artículo 11.º Otras Excedencias.

Las empresas concederán excedencias al personal con al menos un año de antigüedad en la empresa, con reserva o reincorporación automática en su anterior o similar puesto de trabajo, siempre que cumplan los requisitos siguientes:

- a) Que los motivos de la misma sean la realización de estudios de formación profesional o reciclaje que con posterioridad puedan ser incorporados a la propia empresa.
- b) Que la excedencia no sea superior a un año, salvo acuerdo entre las partes.
- c) Que el número de personas que coincidan en este tipo de excedencias no sea más de uno en las empresas de menos de 50 trabajadores/as, de dos en las empresas de 50 a 100 trabajadores/as y de un 2 % de su plantilla en las empresas de más de 100 trabajadores/as.
- d) Dicha excedencia se exceptúa, salvo acuerdo en contrario, en los directivos y mandos de la empresa.

En cuanto al resto de las excedencias, será de aplicación lo establecido en la legislación en vigor.

### CAPÍTULO IV

#### Artículo 12.º Salario de Convenio.

Se acuerda un incremento salarial del 1,3 % para el año 2020, con efectos retroactivos a 1 de enero y los atrasos generados se abonarán en la nómina de abril.

Las Tablas de retribuciones mínimas serán las establecidas en el anexo.

#### Artículo 13.º Ropa de trabajo.

La empresa en la medida de lo posible facilitará a todo trabajador ropa para el invierno y ropa para el verano.

#### Artículo 14.º Valoración de Puestos de Trabajo.

Los conceptos que en cualquiera de los sistemas se utilicen podrán traducirse fácilmente a los criterios generales siguientes:

- a) Criterio de conocimientos. En su doble vertiente de teóricos y prácticos (habilidad, experiencia, etc.).
- b) Criterio de esfuerzos aportados, tanto sensoriales o nerviosos como físicos o mentales.
- c) Criterio de responsabilidad por los elementos que tenga a su cargo el personal o se relacionen con él (instalaciones, materiales y productos, personas o información, etc.).
- d) Criterio de condiciones ambientales (penosidad, toxicidad o peligrosidad).

La valoración asignada con estos sistemas establecerá la posición relativa de cada uno de los puestos de la Empresa en cuanto a jerarquía de valores laborales cualitativos. Dicha valoración se refiere a las cualidades o exigencias del puesto como tal, independientemente de la persona que lo ocupe.

Lanpostuen balorazioa ezarrita badago, edo ezartzen bada, beheragoko kategoriako langileak azaltzen diren mailean ezin izango da eduki hitzarmen honetan langile horientzat adierazi den ordainsaria baino txikiagoa.

Baloratutako ezein lanpostutan ez da jasoko, hasiera batean, balorazioa egin aurretik baino diru-sarrera txikiagoa.

Aurreko diru-sarretatik beherakotzat jotzen bazaie langileei diru-sarrera horiek gordeko zaizkie, irentsigarri moduan, honako baldintza hauetan:

a) Produkzio-primak eta, hala izanez gero, bestelako plusak ez dira diru-sarrera finkotzat hartuko inola ere. Kontzeptu horien ordainetan, lanpostu berriari dagozkion zenbatekoak jasoko dira lehenengo unetik.

b) Lehengo balorazioaren eta berriaren arteko aldea gerorako igoeretan xurgatuko dira, bakoitzean alde horren % 50 igoko dela gehienez ere. Alde hori euro 1era iristen ez denean, osorik xurgatu ahal izango da.

c) Balorazioaren ondorioz ekonomikoki kaltetuak suertatu diren langileei lehendik zuten lanpostu-mailaren antzeko bat eskaini diezaieke enpresak edozein momentutan, halako lanposturen bat hutsik egonez gero. Proposamen hori ez bada onartzen, diferentzia guztiz xurgatuko da gehikuntza bakoitzak ahalmentzen duen mugaren barruan, eta, kasu horretan, ez da derrigorrez errespetatu beharko artikulua honetako b) atalean ezarritakoa.

Enpresan 18 hilabete baino gehiago daramatzaten langile guztiak kategoriaz igoko dira automatikoki.

**15. artikulua.** *Gaueko lanak eta bereziki nekagarri, toxiko eta arriskutsuak diren lanak.*

Lanen aparteko nekagarritasuna, toxikotasuna eta arriskugarritasuna barne hartuta geratuko dira lanpostuak baloratzerakoan eta pizgarrien balioak ezartzean. Pizgarria beste soldata-kontzeptu batzuetan sartu gabe dagonean, lan horiek egin behar dituzten langileek % 20, % 25 edo % 30eko haborokina jasoko dute, aipatutako kontzeptuetako batek, bik edo hiruk ukitzen dituzten kontuan hartuz.

Haborokin horren zenbatekoa oinarrizko soldata gehi antzinatasun-plusa gehituta kalkulatu da.

Eguneko lanaldian zehar aipatutako lanetan 60 minututik gora eman dituen langileak lanaldi-erdiari dagokion plusa jasoko du. Emandako denbora lanaldi-erdia baino gehiagokoa izango balitz, lanaldi osoaren gainean kalkulatu litzaioteko plus hori.

Instalazioak edo prozedurak hobetu izanagatik enpresak laneko baldintza nekagarriak, toxikoak edo arriskutsuak desagertu direla irizten badiu, Laneko Segurutasun eta Osasun Batzordeari edo, hala badagokio, prebentzioko ordezkariari egiaz-tatu beharko dio.

Enpresaren komunikazioarekiko adostasunik ez badago, Laneko Segurutasun eta Osasun Batzordeak edo prebentzioko ordezkariak txostena eskatu ahal izango die Enpresa Batzordeari, langileen ordezkariari eta bidezko hartzen dituztenei (Osalan, Laneko Ikuskatzailatzari, Prebentzio Zerbitzuari eta abar), desagertzea egiaztatzeko.

Lana osasungarritasun- eta higie-ne-baldintza normaletan egiteko beharrezkoak diren neurriak hartu ondoren, adierazitako hoberia ordaintzeari utziko zaio, kasu bakoitzean bidezkoak diren errekurtsuak baztertu gabe.

**16. artikulua.** *Antzinatasuna.*

Hitzarmen Kolektibo honek eragindako langileek aldizkako igoerak jasoko dituzte zerbitzu-urte bakoitzeko; zehazkiago, bosturtekoen arabera kobratuko dute, eta oinarrizko soldataren % 3koak izango dira bosturteko horiek.

De estar establecida o establecerse la valoración de puestos de trabajo, el escalafón donde figuren los/as trabajadores/as de categoría inferior, no podrá tener una retribución menor a la que para los mismos se señala en el presente Convenio.

Ninguno de los puestos valorados percibirá, en principio, menores ingresos anuales que antes de la valoración.

El personal cuyo puesto de trabajo salga valorado por debajo de sus ingresos anteriores, conservará dichos ingresos a título personal y con carácter de absorbibles, en las siguientes condiciones:

a) En ningún caso se considerarán como ingresos fijos las primas de producción, ni los pluses en su caso. Por estos conceptos se percibirán, desde el primer momento, las cantidades que correspondan al nuevo puesto.

b) La diferencia de retribución resultante entre la anterior valoración y la nueva se irá absorbiendo en futuros aumentos, a razón del 50 % de dicha diferencia como máximo. Cuando dicha diferencia sea inferior a 1 euro se podrá absorber en su totalidad.

c) La empresa estará facultada en cualquier momento para ofrecer, a quienes salgan perjudicados económicamente con la valoración, otro puesto disponible del mismo nivel que el que anteriormente ostentaban. Caso de no ser aceptada dicha propuesta, la absorción de la diferencia se efectuará en su totalidad, dentro del límite que cada incremento posibilite, sin que sea preciso respetar lo indicado en el apartado b) de este artículo.

Todo trabajador que lleve más de 18 meses en la empresa se le subirá de categoría automáticamente.

**Artículo 15.º** *Trabajos excepcionalmente penosos, tóxicos y peligrosos.*

La excepcional penosidad, toxicidad o peligrosidad de los trabajos quedará normalmente comprendida en la valoración de puestos de trabajo y en la fijación de los valores de los incentivos. Cuando no quede comprendida en otros conceptos salariales, se abonará al personal que haya de realizar aquellas labores una bonificación del 20, 25 o 30 por 100, según se vea afectado por uno, dos o los tres conceptos anteriores.

Dicha bonificación se calculará sobre el salario base más la antigüedad.

El/a trabajador/a que realice las tareas a que se ha hecho referencia durante un período superior a 60 minutos por jornada devengará el plus correspondiente a media jornada; si excediese de media jornada dicho plus se calculará sobre la totalidad de la misma.

Si por mejora de las instalaciones o procedimientos, la empresa considerara que han desaparecido las condiciones de penosidad, toxicidad o peligrosidad en el trabajo, deberá acreditarlo ante el Comité de Seguridad y Salud Laboral o Delegado/a de Prevención en su caso.

En caso de no existir conformidad con la comunicación de la empresa, el Comité de Seguridad y Salud Laboral o el Delegado/a de Prevención podrá solicitar informe al Comité de empresa o Delegados/as de Personal así como los que se consideren oportunos (Osalan, Inspección de Trabajo, Servicio de Prevención,) para certificar su desaparición.

Una vez adoptadas las medidas necesarias para que el trabajo se realice en condiciones normales de salubridad e higiene dejará de abonarse la citada bonificación, sin perjuicio de los recursos que correspondan en su caso.

**Artículo 16.º** *Antigüedad.*

El personal comprendido en el presente Convenio Colectivo percibirá aumentos periódicos por años de servicio, consistentes en el abono de quinquenios en la cuantía del 3 % del salario base.



Langileen antzintasuna arau hauen arabera zenbatuko da:

a) Antzintasanaren hasiera data langilea enpresan sartu zenekoa izango da, ikastun edo izangai-garaia ere barne hartuta.

b) Antzintasuna zenbatzerakoan langileak enpresan jardunean emandako urte guztiak hartuko dira kontuan, lanbide-taldea edo kategoria edozein izan duela ere.

Probaldian edo aldi baterako eta bitarteko langile gisa enpresan zerbitzuak emanez egindako denbora ere zenbatuko da, langileok enpresaren plantillan sartzen direnean.

c) Antzintasanagatiko iguera berriak bosturteko bakoitza betetzen den hilabetean hasiko dira kobratzen.

Plus hori langilea dagokion enpresarekin lotzearen saria denez, aurrean zehaztutako hobekuntza ezingo du beste inolako kontzepturik konpentsatu, baina kontzeptu beragatik enpresak ezarritako beste haiek zurga dezakete.

Plus horrek ez du mugarik izango.

#### 17. artikulua. Aparteko haborokinak.

